

Hirugarren behe hagina

Hagin hau oso aldakorra da itxura aldetik, eta gehienetan ez dago guztiz garatuta. Gogoan izan bestalde hirugarren goi haginaren herste-aldeko esmaltea lodiagoa izaten dela behe hagin enparatuetan baino. Herskuntza aldetik hobekien egokitzen den aldakia lau gailurduna izaten da, bigarren behe haginaren antza handiena duen aldakia alegia.

Masail-aldeko eta mihi-aldeko ikuspegia

Koroaren silueta lehenengo eta bigarren behe haginaren antzekoa izaten da, eta gehienetan biribilduagoa. Koroa txikiagoa da altueran bigarren haginarena baino. Herste-aldearen silueta zapalagoa da, eta hortaz gailurrak ez dira gainontzeko behe hagineta bezain nabarmenak. Gehienetan erro bi aurkitzen dira, urrun eta hurbil bana, laburragoak bigarren behe haginarenak baino. Gehienetan biak daude alde urrunerantz okerturik baina bihurriak dira sarritan. Erro biak batean ere ager daitezke.

Atxikitze-aldeetako ikuspegia

Bigarren haginaren itxura berekoak dira, baina gehienetan txikiagoak.

Herste-aldeko ikuspegia

Aipatu bezala, herskuntza aldetik egokien suertatzen den aldakia bigarren behe haginaren antza handiena duena izaten da. Delako aldaki honek silueta biribilduagoa izaten du bigarrenak baino, eta estuagoa izaten da alde urrunean hurbilean baino.